


# Iceberg Programa



## Taldearen presioa

## HELBURUAK

- Ezaugarriak ezagutu, funtzionamendua, taldeen abantailak eta desabantailak
- Nerabeentzako taldeak duen funtzio garrantzitsua goraiatu.
- Talde presioa zer den ulertu, nola funtzionatzen duen eta zer nolako trebetasunak izan behar ditugun talde presioari aurre egiteko.

## METODOLOGIA

Gela taldeetan banatzen da. Aurkezten diren kasu guztiak aztertzen dira, bat gehiago gehitu daiteke ikasleko. Erantzuna adostu eta erantzutean datza. Bukaeran amankomunean jarri eta ondorioak ateratzen dira.



**1. KASUA:** *Nire urtebetetzean amak jertse berde bat oparitu dit. Egia esan gustatu zait baina jarraian nire lagunek zer esango duten pentsatu dut. Badirudi haiek entzuten nagoela: Nora zoaz berde horrekin? Nahiz eta ez diodan ezer esan nire amari ez dut jarriko.*

### ERANTZUN

- ☞ Noizbait horrela sentitu zara?
- ☞ Zergatik egin zuela uste duzu?
- ☞ Zer nolakoa iruditzen zaizun lagun jarriera?

**2. KASUA:** *Aurretik inoiz ez naiz inorekin sartu baina pasadan egunean Mikelekin "baxua" jolasten geunden eta mundu guztia berarekin sartzen zegoenez nik ere berdina egin nuen. Jarraian gaizki sentitu nintzen, baina ezin nuen egiteari utzi. Zer gertatu zitzaidan?*

### ERANTZUN:

- ☞ Jar itzazu beste adibide batzuk zeinetan jende batek taldean dagoenean bakarka egingo ez zituen "gauzak" egiten dituen.
- ☞ Nola azalduko zenioke pertsona honi zergatik gertatu zitzaien hori?
- ☞ Saiatu "pertsona baxu" horren lekuan jartzen. Nola sentitu zela uste duzun.

**3.KASUA:** Azkenaldi honetan koadrilak litroak egiten besterik ez du pasatzen ondo. Niri ez zait gustatzen edatea, baina egin beharra du ez dudalako talde gabe geratu nahi. Pasadan astean etxean liskarra izan nuen “piskat ikututa” iritsi nintzelako.

**ERANTZUN:**

- ☞ **Beharrezkoa iruditzen al zaizu nahi ez duzunean edan beharra koadrilan jarraitu ahal izateko?**
- ☞ **Nola azalduko zenieke gurasoei ez zaizula gustatzen edatea, behin edanda zaudela ikusi zaituztenean?**
- ☞ **Zuk zer egingo zenuke?**

**4. KASUA: KASU EZAGUN BAT AURKEZTEN DUGU**

---

---

---

---

**ERANTZUN:**

- ☞ ¿?
- ☞ ¿?
- ☞ **Zuk zer egingo zenuke?**

Erabakiak hartzeari buruzko bideoa ikusi: “La Luna”



<https://www.youtube.com/watch?v=1NsKokhM4EY>

Bideoa amankomunean jarriko dugu.

Informazio gehiagorako:

[www.info@sasoiaprevención.com](http://www.info@sasoiaprevención.com)